

Koiuntura di-da batean

2017ko apirila

Aurkibidea

1. Hazkundera
 2. Afiliazioa
 3. Langabezia erregistratua
 4. Inflazioa
 5. Konfiantza
 6. Ingurunea
 7. ELGEren aurreikuspenak
- Eranskina

1. Eusko Jaurlaritzak gorantz berrikusi du 2017rako aurreikuspena.

BPGa %2,5 haziko da aurten eta %2,2 datorren urtean.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 hazi da berriro.

Eraikuntza hazi da gehien oraingoan.

3. Langabezia erregistratuaren jaitsiera %10,0aren ingurukoa da.

Aurretik lan egin dutenek aukera gehiago dute lanpostu bat lortzeko.

4. KPlak %2,9an jarraitzen du.

Garraioak eta etxebizitzak bakarrik gainditu dute %2,0ko erreferentzia.

5. EAEko familien konfiantza finkatzen ari da.

Baikorrakoak dira ekonomia orokorraz eta enpleguaz.

6. Europar Batasuneko motorra kontsumoa izan zen 2016an.

Nekazaritzaz bestelako adar guztiak hazi ziren urte horretan.

7. ELGEk bere horretan utzi ditu munduko hazkundearen aurreikuspenak.

Erresuma Baturako 2017ko datua hobetu du eta 2018koa, berriz, okertu.

EUSKO JAURLARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPEN BERRIAK

Eusko Jaurlaritzak gorantz berrikusi du 2017rako aurreikuspena

BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



2016ko laugarren hiruhilekoko kontu ekonomikoak argitaratu ondoren eta inguruneke informazio berriena ezagututa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2017rako ekonomia aurreikuspenak eguneratu ditu. Orobat, datorren urterako lehen zenbatespena osatu du. Ariketa horren emaitzak adierazten du EAEko barne produktu gordina aurtien %2,5 haziko dela, hots, azaroan iragarri zena baino bi hamarren gehiago. 2018ko gehikuntza, berriz, %2,2ra iritsiko da. Hala kontsumoak nola inbertsioak bizitasun garrantzitsua erakutsiko dute, nahiz eta bilakaera kontrajarriak izan. Azken kontsumoak zertxobait motelduko du bere indarra hiruhilekoak igaroko diren heinean. Kapital eraketa gordinak, ordea, emaitza hobea izango du 2018an (%3,3) 2017an (%3,1) baino.


Gastua azken kontsumoan

Urte arteko aldakuntza tasa



Kapital eraketa gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreikuspen berri honetan, industriak nahiko joera egonkorra erakutsiko du kontuan hartu den epealdi osoan eta hazkunde tasak %2,5aren inguruan kokatuko dira. Aurtengo lehen hiruhilekoan datu apala jasoko duela espero da, enpresa handi batek geldialdia egin zuelako hiruhilekoaren zati handi batean. Geroztik, gehikuntza tasak aipatu den %2,5 horren inguruan egongo dira.


Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasak



Eraikuntzaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasak




Eraikuntzak 2016ko susperraldi neurritsua finkatuko du eta urte hartakoa bezalako gehikuntzak lortuko ditu balio erantsian. Hain zuzen ere, 2017an %1,5eko gehikuntza espero da eta datorren urtean %1,3koa. Beraz, krisi aurreko garaian eskuratu ohi ziren tasa altuetara itzultzea ez da aurreikusten.

Zerbitzuek moteltzeko joera arina erakutsiko dute epealdi horretan. Izan ere, 2017ko hazkunde tasa % 2,7an kokatuko da eta 2018koa % 2,4an. Familiei lotuta dauden zerbitzuek kontsumoaren apaltzea haute-mango dute, prezioak igoko diren heinean eta enplegu garbia sortzeko ahalmena murriztuko den neurrian. Aitzitik, industriari lotuta dauden zerbitzuek joera egonkorragoa izango dute.

Zerbitzuen balio erantsia


Urte arteko aldakuntza tasak



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 hazi da berriro

Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzako afiliazioak hobera egin zuen martxoan ere eta duela urtebete zeudenak baino 18.330 lagun gehiago zeuden afiliatuta. Horren ondorioz, urte arteko aldakuntza tasa %2,0an kokatu zen, hala aipatu den hilekoan nola azken bi hiruhilekoen batez bestekoan. Horrek egonkortasuneko irudia ematen dio erregistro horri, aldakuntza gutxirekin azken bi urtekoan luzatu baita. Genero bakoitzaren bilakaeran ez da alde handirik hautematen, nahiz eta emakumeen afiliazioa oraindik zertxobait biziago hazten den. Hain zuzen ere, lehen hiruhilekoko batez bestekoa %2,1 izan zen emakumeentzat eta %1,9, berriz, gizonentzat. Kri-siak gehien kaltetutako sektoreen susperraldiak lagundu du bi tasa horiek berdintzen.


Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Izan ere, eraikuntzak urrats sendoak eman ditu suspertzeko bidean eta martxoan %2,2ko urte arteko tasa eskuratu zuen, beste bi sektore nagusiek lortu zituzten balioak gaindituz. Horrelakorik ez da gertatu krisia hasi zenetik. Industriak, berriz, %1,8ko gorakada izan zuen, oraindik garrantzitsua dena, baina azken bederatz hilekoko apalena ere badena. Azkenik, zerbitzuen afiliazioa %2,1 handitu zen martxoan, aurreko bi hilekoetako emaitzak berdinduz. Sektorearen barruan, higiezinaren jarduerak izan zuten hazkundea azpimarrratu behar da, hamabi hilekoz jarraian jaitsierak bildu eta gero. Halaber, pisu handia duten adar batzuen sendotasuna nabarmendu behar da, hala nola ostalaritza (%2,6), hezkuntza (%4,5) eta osasuna (%2,6).

Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak


	2016eko martxoa	2017ko martxoa	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	903.702	922.032	18.330
Industria manufakturagileak	168.156	171.299	3.143
Merkataritza	135.099	136.271	1.172
Osasun arloko jarduerak	86.191	88.461	2.270
Hezkuntza	64.948	67.890	2.942
Ostalaritza	61.448	63.067	1.620
Administrazio jarduerak	60.701	62.870	2.169
Eraikuntza	52.393	53.632	1.239
Lanbide jarduerak	51.738	52.892	1.154
Administrazio publikoa	46.413	46.985	572
Garraioa	38.498	39.382	884
Etxeko langileak	35.749	36.181	432
Bestelako zerbitzuak	28.896	28.698	-198
Informazioa eta komunikazioa	20.634	21.342	708
Finantza jarduerak	19.081	18.435	-646
Jarduera artistikoak	14.562	15.380	818
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.409	12.491	82
Ur horniketa	5.588	5.589	1
Higiezinaren jarduerak	3.656	3.777	121
Energia horniketa	1.654	1.755	101
Erauzketa industriak	594	566	-28
Lurraldez kanpoko erakundeak	39	41	2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA LANBIDEN

Langabezia erregistratuaren jaitsiera %10,0aren ingurukoa da

Langabezia erregistratua guztira
Urte arteko aldakuntza tasa






Lanbideko bulegoetan izena emanda dauden langabeen kopuruak 2015eko amaieratik bizi duen beheranzko joera biziari eutsi zion. Izan ere, 2017ko lehen hiru hilekoetan bulego horietan dauden lagunen kopurua, batez beste, %10,1 murriztu zen, aurreko epealdietako emaitzak hobetuz. Mailari dagokionez, martxoan 138.157 pertsona zeuden izena emanda, hots, iazko hileko berean zeudenak baino ia 16.000 gutxiago. Análisis generoaren arabera egiten denean agerian geratzen da gorabehera handiagoak izaten direla gizonen kasuan, industria eta eraikuntza jarduerari lotuago egoten direlako. Esate baterako, bigarren atzeraldian (2012-2013) gizonen langabezia emakumeena baino gehiago hazi zen eta orain jaitsiera biziagoa da.

Langabezia erregistratua. Emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa




Langabezia erregistratua. Gazteak
 Urte arteko aldakuntza tasak

Langabezia erregistratua. Atzerritarrak
 Urte arteko aldakuntza tasak


Martxoko datuetan deigarria da gazte langabeen artean gauzatu zen bat-bateko beherakada, %13,9ra iritsi zena, aurreko hilekoetan langabeen kopurua egonkortzen ari zela ematen zuenean. Mugimendu bortitz horiek ez dira berriak eta 2013ko eta 2015eko amaieran ere gertatu ziren. Baita pasa den udazkenean ere, kontrako zentzuan. Beste aldetik, baieztatuta geratu da lan eskarmentua duten langabeek aukera handiagoak izaten dituztela gaur eguneko lan merkatuan. Izan ere, lehenago lana izan zutenen langabezia %10,8 murriztu zen eta lehen enplegua bilatzen ari direnen artean %5,3 baino ez. Azkenik, atzerritar langabeen martxoko jaitsierak (%-8,1) atzera egin zuen bertoko lagunen bilakaerarekin (%-10,7) bat egiteko prozesuan, urtarrian eta otsailean esku-eskura baitzegoen.

Langabeak			
	2016eko martxoa	2017ko martxoa	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	153.936	138.157	-15.779
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	25.216	22.412	-2.804
Bizkaia	86.954	78.274	-8.680
Gipuzkoa	41.766	37.471	-4.295
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	71.159	61.536	-9.623
Emakumeak	82.777	76.621	-6.156
25 urtetik beherakoak	9.115	7.844	-1.271
25 urte baino gehiago dutenak	144.821	130.313	-14.508
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	3.380	3.179	-201
Industria	19.744	16.808	-2.936
Erakuntza	15.108	12.068	-3.040
Zerbitzuak	99.535	90.791	-8.744
Lehenago lan egin dutenak	137.767	122.846	-14.921
Lehenago lan egin ez dutenak	16.169	15.311	-858
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	23.890	21.966	-1.924

INFLAZIOA



KPIak %2,9an jarraitzen du

KPI indize orokorra
 Urte arteko aldakuntza tasa


KPI indizeak otsailean errepikatu zuen urtarrilean jasotako %2,9ko hazkunde tasa eta 2012ko urritik izan duen mailarik gorenean jarraitzen du. Berrito adierazi behar da tasa hori energia alorreko faktore jakin batzuen ondorioa dela eta eragin iragankorra izango duela. Hain zuzen ere, Estaturako ezagutu den martxoko adierazle aurreratuak jaitsiera garrantzitsua iragarri du. Halaber, azpiko inflazioa oso tasa apaletan (%1,0) dago oraindik.


KPIaren banaketa
 Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017ko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	2,9	2,9
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	1,0	0,7
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	-0,9	-0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	1,0	0,2
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	1,3	0,6
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	12,5	2,2
- Landu gabeko janariak (%7,8)	1,9	2,6	6,5	0,5
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	16,5	1,7

Azpiko inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak

Hondar inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak


Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Petrolioak prezio urkila estu baten barruan jarraitu zuen, Brent motako upela 50 eta 55 dolarren artean saldu baitzen. Herrialde ekoizleek produkzioa murrizteko akordioa adostu zuten arren, petrolio gordinaren izakinak etengabe ari dira handitzen. Hala eta guztiz ere, egonkortasun horrek ez zuen erregaien urte arteko tasan eraginik izan, oraindik oso altua baitzen.

Aitzitik, argindarraren salneurria apaldu zen eta, horren ondorioz, etxebizitza taldearen urte artekoa nabarmen jaitsi zen, %5,7an kokatu arte. Talde hori eta garraioarena (%8,4) dira indize orokorra gorantz bultzatzen dutenak oraindik, gainontzeko taldeak %2,0ko erreferentziaren azpian dauden bitartean. Beraz, prezioen gorakada produktu gutxi batzuetan dago fokatuta eta ez dago igoera orokorrik. Beste aldetik, adierazi behar da otsailean talde guztiek urte arteko tasa positiboak izan zituztela eta gehienak %1,0aren gainetik kokatu zirela.

KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2017ko otsaila


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,9	3,0	2,0
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,6	1,7	2,7
Edari alkoholikak eta tabakoa	1,6	1,8	1,8
Jantziak eta oinetakoak	1,0	0,9	0,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	5,7	5,9	2,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantenimendua	0,2	-0,4	-0,1
Medikuntza	1,5	0,8	0,9
Garraioa	8,4	8,5	5,4
Komunikazioak	1,6	1,6	-0,9
Aisia eta kultura	1,7	0,7	0,8
Hezkuntza	1,6	1,0	0,6
Jatetxeak eta hotelak	1,1	1,3	1,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,1	1,0	0,7

Iturria: INE eta Eurostat.

KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA


EAEko familien konfiantza finkatzen ari da

Familien konfiantza indizea




Laboral kutxak familien konfiantza indizearen datuak, 2017ko lehen hiruhilekokoak, argitaratu berri ditu. Adierazle horren arabera, konfiantza ez da aldatu aurreko datuaren aldean eta hurbil dago baikortasuna eta ezkortasuna bereziten dituen langatik. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da estatistika horrek urte sasoiaren eragina nozitzen duela eta lehen hiruhilekoan eman ohi diren erantzunak, gaur arte behintzat, urte osoko txarrenak izaten direla. Beraz, 2017ko lehen hiruhilekoko datua aurreko urteetako lehen hiruhilekokoekin alderatzen bada, hobekuntza begi bistakoa da. Zehazkiago, iritzi baikorragoa dago ekonomia orokorraz familiaren ekonomiaz baino.


Ekonomia orokorra




Familien ekonomia



Langabeziaren bilakaera



Aurrezteko ahalmena



2017ko lehen hiruhilekoan azpimarratu behar den beste ezaugarri bat EAEko familiek langabeziaren bilakaeraz duten iritzia da, gero eta baikorragoa delako, azken hiru urteko daturik onena jaso baitu. Beste aldetik, ez da aldaketarik hauteman aurrezteko ahalmenaz eman dituzten erantzunetan, oraindik eremu negatiboan kokatuta baitaude. Oro har, kolektibo baikorra da (25 urtetik 39ra bitartekoena), 65 urtetik gorakoak oso ezkorak diren bitartean. Halaber, emaitza baikorrak jasotzen dira lana duten pertsonengandik eta errenta altuenak eskuratzen dituztenengandik. Gaurkoa erosketak egiteko une aproposa ote den galdetzen zaienean, hobekuntza esanguratsua hauteman da 2017ko hasieran, nahiz eta oraindik zuhurtzia erakusten duten erosteko orduan, bereziki etxebizitza eta ibilgailua erosteko orduan.

Ingurune herrialdeekin alderatuta, EAEko familiak Europako batez bestekoa baino zertxobait baikorrak direla hautematen da, hala Europar Batasuna kontuan hartzen bada nola Eurogunearen kasuan. Alemania eta Herbehereak bakarrik dira baikorrak. Azken herrialde horretako datua oso positiboa da.


FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2015	2016	2015		2016				2017
			III	IV	I	II	III	IV	I
EUSKADI	-6	-5	-6	-4	-7	-3	-5	-3	-3
Eurogunea	-6	-7	-7	-6	-8	-8	-5	-6	-6
Europar Batasuna	-4	-6	-5	-5	-6	-6	-7	-6	-5
Frantzia	-17	-14	-17	-14	-15	-14	-14	-13	-9
Alemania	0	-4	0	-4	-6	-3	-3	-2	-1
Erresuma Batua	3	-3	2	2	2	-1	-6	-5	-5
Italia	-6	-9	-9	-2	-4	-8	-12	-11	-14
Espania	0	-4	-1	2	-2	-3	-6	-4	-3
Herbehereak	6	5	9	6	0	2	6	12	18
Portugal	-12	-12	-12	-12	-12	-13	-13	-8	-5


EUROPAKO HAZKUNDEA

Europar Batasuneko motorra kontsumoa izan zen 2016an

Europar Batasuneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital finkoaren eraketa gordina
Urte arteko aldakuntza tasa



Europar Batasunak inguruneko erronka globalen aurrean dauzkan sendotasuna eta ahalmena erakutsi zuen eta %1,9 hazi zen 2016an. Tasa hori 2015ekoa baino hiru hamarren txikiagoa da, baina azken 20 urteko batez bestekoa (%1,7) gainditu du. Gehikuntza hori eremuko herrialde guztien hazkunde positiboan oinarritu zen. Halakorik ez da ia hamarkada oso batean gertatu. Zehazkiago, hazkunde tasak Greziaren %0,0tik Errumaniako %4,8ra bitartean kokatu ziren. Aldeko bilakaera horrek, espero zena baino hobea baita, Europako Batzordearen hazkunde aurreikuspenak berriro igotzea ekarri du berarekin. Izan ere, europar erakundeak aurreikusten du bilakaera positibo hori 2017ra eta 2018ra luzatuko dela, eta Europar Batasuneko BPGa %1,8 haziko dela bi urteetan, 2016an jasotako erritmotik oso hurbil.

Kontsumo pribatua
Urte arteko aldakuntza tasa




Kontsumo publikoa
Urte arteko aldakuntza tasa




Industria

Urte arteko aldakuntza tasa

**Eraikuntza**

Urte arteko aldakuntza tasa




2016an, soldatak eta enplegua erritmo iraunkorrean hazi ziren eta langabeziak behera egin zuen berriro, nahiz eta oraindik krisiaren aurreko maila gainditzen duen. Aurreko guztiak on egin zion kontsumo pribatuari, susperraldiaren bultzagile nagusia izan baitzen, BPGa baino zertxobait gehiago haziz. Hala eta guztiz ere, kontsumo publikoak eta, neurri txikiagoan, inbertsioak ere ekarpen positiboa egin zioten jarduerari. Aitzitik, bai esportazioek bai inportazioek beren emaitzak apaldu zituzten eta ekarpen negatiboa egin zioten BPGaren hazkundeari.


Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek, lehen arloak izan ezik, bilakaera positiboa lortu zuten, baina zerbitzuek bakarrik eskuratu zituzten aurreko urtekoak baino tasa handiagoak. Izan ere, eraikuntzak bizitasuna galdu zuen etengabe hiruhileko batetik hurrengora eta industriak goranzko norabidea berreskuratu zuen laugarren hiruhilekoan, baina hori ez zen nahiko izan aurreko motelaldia konpentsatzeko. Zerbitzuetako jardueren artean, oso bizitasun esanguratsua hauteman zen informazioa eta komunikazioan (%4,0), jarduera profesionaletan (%3,2) eta merkataritza, garraioa eta ostalaritzan (%2,8), zerbitzu guztien ia %20 biltzen duen taldea baita.

Merkataritza, garraioa eta ostalaritza

Urte arteko aldakuntza tasa

**HH AA, hezkuntza, osasuna eta defentsa**

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGE-REN AURREIKUSPENAK

ELGEk bere horretan utzi ditu munduko hazkundearen aurreikuspenak

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) tarteko aurreikuspenak argitaratu ditu martxoan. Beraitan, munduko ekonomia aurtun %3,3 haziko dela eta 2018an %3,6ra bizkortuko dela aurreikusten da. Munduko ekonomiarako hazkunde igurikimen horiek ez dute aldatzen 2016ko azaroan aurkeztu zen ikuspegia eta, erakunde horren arabera, kontsumitzaileen eta enpresen konfiantza hobetu den arren, kontsumoa, inbertsioa eta produktibitatea oraindik ez dira behar bezain sendoak.


ELGEren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2017	2018
Munduko ekonomia	3,0	3,3	0,0	3,6	0,0
AEB	1,6	2,4	0,1	2,8	-0,2
Eurogunea	1,7	1,6	0,0	1,6	-0,1
Alemania	1,8	1,8	0,1	1,7	0,0
Frantzia	1,1	1,4	0,1	1,4	-0,2
Italia	1,0	1,0	0,1	1,0	0,0
Erresuma Batua	1,8	1,6	0,4	1,0	0,0
Kanada	1,4	2,4	0,3	2,2	-0,1
Japonia	1,0	1,2	0,2	0,8	0,0
Txina	6,7	6,5	0,1	6,3	0,2
India	7,0	7,3	-0,3	7,7	0,0
Brasil	-3,5	0,0	0,0	1,5	0,3
Gainontzeko herrialdeak	2,3	2,7	-0,1	3,2	0,0

Iturria: ELGE.


AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Alemaniko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneko hiru ekonomia handientzat, hots, Alemania, Frantzia eta Italiarentzat, goranzko zuzenketa txikiak egin dituen arren, erakundeak %1,6ko hazkundea espero du Eurogunearentzat, 2016ko emaitza baino hamarren bat gutxiago. Halaber, beherantz zuzendu du 2018ko gehikuntza.

Erresuma Batuak izan du goranzko zuzenketa handiena (lau hamarrenetakoa) 2017an eta Euroguneko hazkundearen pare kokatu du. 2018rako, moteltze bizia aurreikusten da herrialdean, Brexita negoziatzeko prozesuaren ondorioz. Hain zuzen ere, %1,0ko gehikuntza espero du, tasa txikiena munduko ekonomia nagusien artean. AEBek, Japoniak, Txinak eta Kanadak ere gorantz berrikusi dituzte aurreikuspenak 2017an eta bere horretan geratu da Brasilerrako espero den geldialdia.

Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2015		2016		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,9	3,1	3,1	3,3	3,2	3,0	2,9
Familien kontsumoa	3,1	3,1	2,9	3,3	3,4	3,1	2,9
Administrazioaren kontsumoa	1,8	2,2	2,0	2,4	2,7	0,8	3,0
Kapital eraketa gordina	2,8	3,3	2,8	3,4	3,7	3,1	3,2
Barne eskaria	2,8	3,0	2,7	3,1	3,3	2,7	3,0
Esportazioak	0,6	2,2	2,3	4,2	3,0	1,6	0,3
Inportazioak	0,6	2,2	1,6	3,9	3,2	1,3	0,4
Lehen arloa	13,4	1,6	24,3	11,6	2,8	-0,7	-7,3
Industria	3,9	3,3	4,9	4,8	2,4	2,9	3,0
Eraikuntza	0,5	1,6	-0,2	-0,3	2,7	1,9	1,9
Zerbitzuak	2,9	3,2	2,8	3,0	3,4	3,1	3,1
Balio erantsi gordina	3,1	3,1	3,2	3,3	3,1	3,0	2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,1	3,1	2,0	3,2	3,2	2,9	3,1

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2017ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017				2017	2018
	I	II	III	IV		
BPG	2,7	2,5	2,4	2,4	2,5	2,2
Barneko azken kontsumoa	2,4	2,2	2,1	2,1	2,2	2,0
Familien kontsumoa	2,7	2,4	2,3	2,3	2,4	2,1
Administrazioaren kontsumoa	1,2	1,1	1,1	1,3	1,2	1,7
Kapital eraketa gordina	3,1	2,9	3,1	3,4	3,1	3,3
Barne eskariaren ekarpena	2,6	2,4	2,4	2,5	2,5	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	0,1	0,1	0,0	-0,1	0,0	-0,2
Lehen arloa	-1,6	-8,2	-10,6	-7,0	-6,9	-5,7
Industria	2,1	2,7	2,4	2,7	2,5	2,7
Eraikuntza	1,5	1,3	1,5	1,7	1,5	1,3
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,7	2,6	2,7	2,4
Balio erantsi gordina	2,6	2,5	2,4	2,6	2,5	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,9	2,7	2,6	2,4	2,6	2,0
Enplegua	1,9	1,7	1,7	1,5	1,7	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
BBVA	2,8	2,9	Laboral kutxa	2,3	---
Confebask	2,5	---	Funcas	2,2	---
CEPREDE	2,4	2,3	Hispalink (BEGaren aldakuntza)	2,2	---

Iturria: CEPREDE (2017ko martxoa), BBVA (2017ko otsaila), Confebask (2016ko abendua), Laboral Kutxa (2016ko abendua), Funcas (2016ko urria) eta Hispalink (2016ko azaroa) .

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2015		2016		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,2	3,2	3,6	3,4	3,4	3,2	3,0
Kontsumo pribatua	2,8	3,2	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0
Kontsumo publikoa	2,0	0,8	2,7	1,7	0,7	0,8	0,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	3,1	6,4	4,3	3,4	2,6	2,2
- Aktibo finko materialak	6,5	3,1	6,8	4,4	3,4	2,7	2,2
- Eraikuntzan	4,9	1,9	5,0	2,3	1,8	1,6	1,9
- Ekipamendu ondasunetan	8,8	5,0	9,6	7,4	5,7	4,2	2,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,6	2,9	4,0	4,0	3,2	2,0	2,4
Nazio eskaria (ekarpena)	3,3	2,8	3,8	3,5	2,9	2,5	2,2
Esportazioak	4,9	4,4	5,0	3,8	6,5	2,9	4,4
Inportazioak	5,6	3,3	6,1	4,5	5,4	1,0	2,3

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	2,8	2,4	Intermoney	2,5	1,9
Axesor	2,7	2,3	Repsol	2,8	2,7
BBVA	2,7	2,7	Santander	2,8	2,7
Bankia	2,5	2,0	Solchaga Recio & asociados	2,8	2,3
CaixaBank	2,6	2,2	BATEZ BESTE	2,6	2,3
Cemex	2,7	2,3	Gobernua (2017-03)	2,5	—
CEEM-URJC	2,4	2,4	Espainiako Bankua (2017-04)	2,8	2,3
CEPREDE-UAM	2,7	2,4	Europar Batzordea (2017-02)	2,3	2,1
CEOE	2,5	2,3	NDF (2017-01)	2,3	2,1
FUNCAS	2,5	2,2	ELGE (2017-03)	2,5	2,2
ICAE-UCM	2,5	—	The Economist (2017-03)	2,5	2,1
IEE	2,5	2,2	Consensus Forecast (2017-03)	2,5	2,2

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtsa; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2015		2016		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,6	1,6	1,9	1,6	1,3	1,7	1,9
Txina	6,9	6,7	6,8	6,7	6,7	6,7	6,8
Japonia	0,6	1,0	1,2	0,4	0,9	1,1	1,6
Kanada	0,9	1,4	0,4	1,3	1,1	1,4	1,9
Europar Batasuna	2,2	1,9	2,1	1,8	1,8	1,9	1,9
Eurogunea	2,0	1,7	2,0	1,7	1,6	1,8	1,7
Alemania	1,7	1,9	1,3	1,8	1,8	1,7	1,8
Frantzia	1,3	1,2	1,2	1,2	1,1	0,9	1,1
Erresuma Batua	2,2	1,8	1,7	1,6	1,7	2,0	2,0
Italia	0,8	0,9	1,0	1,1	0,8	1,0	1,0
Herbehereak	2,0	2,1	1,1	1,2	1,9	2,5	2,9

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2017ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AEB	2,3	2,3	2,4	2,3	4,6	4,5
Japonia	1,1	0,9	0,6	0,9	2,9	2,8
Kanada	2,0	2,0	2,0	2,0	6,8	6,7
Europar Batasuna	1,6	1,6	1,7	1,7	—	—
Eurogunea	1,4	1,5	1,4	1,4	9,7	9,3
Alemania	1,3	1,5	1,7	1,7	6,1	6,2
Frantzia	1,3	1,4	1,2	1,4	9,5	9,3
Erresuma Batua	1,4	1,4	2,5	2,6	5,2	5,4
Italia	0,7	0,9	0,9	1,1	11,4	11,0
Herbehereak	1,7	1,6	1,2	1,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.